

UMEEN ZERBITZUAREN PROGRAMA ZEHATZAK

- 1.– Haurrak babesik gabe dituzten familien baitan esku hartzeko egitarau berezia.
- 2.– Familia barruan sexu abusuak daudenean laguntza psikologikoa emateko programa berezia.
- 3.– Familia interbentzioko programa adingabeekin eta etnia ijitoko familiekin.
- 4.– Jakinarazpen, Zitazio eta Adingabekoen Lekualdaketen Zerbitzua.
- 5.– Nerabeekin esku hartzeko egitarau espezializatua.
- 6.– Familia harrera sustatzeko programa.
- 7.– Familia harrera profesionalizatuaren programa.
- 8.– Nazioarteko adopziorako eskatzaileak baloratzeko programa.
- 9.– Bizkaian adopzioa sustatzeko programa.
- 10.– Laguntza espezializatuko familia elkargunea.

1.– HAURREN BAT BABESIK GABE DAGOEN FAMILIETAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA BEREZIA

Adingabea familiarengandik banandu ez dadin, eta, aukera dagoenean, familiako kideak berriro batu daitezten sustatzeko eta gurasoen gaitasuna baloratzeko, ezinbestekoa da behar adinako baliabideak edukitzea norbanakoen, familiaren eta gizartearen arazoei aurre egiteko, hain zuzen ere haurren babesik eza eragin duten edo iraunarazten ari diren arazoei ekiteko.

Programaren helburu nagusiak hauek dira:

- Familia iraunaraztea eta berriro elkartzea: (a) gurasoak seme-alabak zaindu eta haietaz arduratzeko gai izan daitezten lortzea, (b) umeei garapen prozesu osasuntsu eta normalizatua izan dezaten sustatzea, gorputzari, afektuei, adimenari eta gizartertzeari dagokienez eta (c) gurasoen gaitasuna baloratzea. Helburua zera izango litzateke, (a) bere familia girotik banantzea saihestea babesik gabeko egoera larrietan; (b) bere etxera itzultzea sustatzea bere babesa ziurtatzeko behin-behinean bere bereizi behar izan den kasuetan eta (c) gurasoen gaitasuna baloratzea, adingabeari arreta emateko.
- Familiaren osagarri izatea. Izan ere, batzuetan gurasoak gai dira seme-alaben zainketari dagozkion eginkizunetako batzuk egokiro betetzeko eta familiarekiko lotura afektibo sendoa dago, baina gurasoek zenbait arazo dituzte, kronikoak eta konponezinak, eta ezin diete aurre egin euren seme-alaben oinarrizko beharrezanetariko batzuei.

Hona nortzuk ari diren programan: (a) “kasuaren gainbegiratzailea”, eta (b) familia hezitzaileak eta psikoterapeutak.

Hartzaileak

Programa honen jasotzaile izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoan bizilekua duten familiak, baldin eta euren seme-alabak 0 eta 18 urte bitartekoak badira, eta seme-alaba horiei buruz Gizarte Ekintza Sailak babes espedientea ireki badu.

Zehatz esateko, programak laguntza emango die:

- Familiaren egoitzan euren guraso, tutore edo zainzaileekin bizi diren ume edo nerabeei.
- Babesteko neurri gisa, aldi baterako euren jatorrizko familiatik banandu dituzten eta harrerako zentro batean edo harrera familietan dauden ume edo nerabeei.

Onuradun izateko irizpideak

Onuradun izateko, hurrengo irizpideak bete behar dira:

- a) Familiaren egoitzan euren guraso, tutore edo zaintzaileekin bizi diren ume edo nerabeak.
- b) Babes neurri gisa euren jatorrizko familiarengandik aldi baterako banandu dituzten umeak badira:
 - 1.– Maitasun harreman nabarmena izatea adingabearen eta guraso, tutore edo zaintzaileen artean.
 - 2.– Eragozpen handiak izatea gurasoei berez dagozkien erantzukizunei aurre egiteko.
 - 3.– Eragozpen horiek begi bistan geratu behar dira, hurrengo adierazleetatik edozein aplikatuz gero. Arduragabekeria ez oso larria, tratu txar fisiko ez oso larria, tratu txar emozional ez oso larria edo larria, abandonu emozional ez oso larria edo larria; beste edozein motatako tratu txarrak edo abandonuak (lan esplotazioa, eskean aritzea, jaio aurretiko tratu txarra etab.); guraso, tutore edo zaintzaileek ezgaitasun larria izatea, seme edo alabaren jokabidea kontrolatu eta gobernatzeko.
 - 4.– Etxebizitzak ez betetzea bertan bizitzeko gutxieneko baldintzak.
 - 5.– Iragarpenen arabera, familiak zerbitzu zehatzak lortzeko aukera izatea, epe ertain edo luzean; euren seme-alabei ematen dizkieten tratua eta zaintza hobetzea edo, bestela, prest egotea, jarraibideak betetzeko eta profesionalek euren seme-alabei laguntza eman diezaieten ahalbideratzeko.
 - 6.– Guraso/tutore/zaintzaileak prest egotea programan parte hartzeko.

Xedeak

- Ume edo nerabeak euren familiatik banandu ez direnean (hots, familiaren batasunari eutsi zaionean):
 - 1.– Familiatik banantzeko arriskua ezabatzea.
 - 2.– Ume edo nerabeak familiaren barruan iraun dezan lortzea; horretarako, haren segurtasuna eta osotasuna bermatu behar dira, bai eta haren oinarrizko beharrianak ase ere.
- Ume edo nerabeak aldi baterako familiatik banandu direnean (hots, familiaren batasuna berrezarri nahi denean):
 - 1.– Familiatik banantzeko beharrianak ezabatzea.
 - 2.– Haurra bere jatorrizko familiarekin itzul dadin lortzea, ahalik arinen.
 - 3.– Aurrerantzean, haurra bere etxetik aldentzeko arriskurik ez izatea, alegia, arrisku hori ezabatu edo kontrolatzea.

Tarteko helburuak:

Gurasoen Gaikuntzarako Azpiprograma:

Familiak izango dira azpiprograma horren jasotzaile, baldin eta, familia horietan, gurasoetako batek, gutxienez, gaitasun potentziala badu, gurasoei berez dagozkien eginkizunak zuzen-zuzenean betetzeko.

- 1.– Guraso, tutore edo zaintzaileei gaikuntza ematea, euren seme-alabei laguntza egokia eman diezaieten eta haien oinarrizko beharrianak ase ditzaten.
- 2.– Hutsuneak/arazoak konpontzea, honako arlo hauek tartean direnean:
 - Guraso, tutore edo zaintzaileen funtzionamendu pertsonala.
 - Adingabeen funtzionamendu pertsonala.
 - Guraso, tutore edo zaintzaileen funtzionamendu pertsonala, guraso moduan.
 - Familia kideen arteko harremanak.
 - Familia sistemaren jardunbidea, hori oso osorik hartuta.
 - Familiak bere ingurunearekin dituen harremanak eta, oro har, familiak gertaera jakin batzuekin dituen harremanak, baldin eta gertaera horiek eragin badituzte tratu txarreko edo abandonu egoera/jokabideak edota batzuk besteei lotuta agertu badira.
- 3.– Ume edo nerabearen oinarrizko segurtasuna eta osotasuna bermatzea; eta, etxean dagoen bitartean, haren oinarrizko beharrianak asetzea.
- 4.– Osotasun fisikoan, emozioetan, ezagutzan edota gizarte mailan izan daitezkeen arrastoak ezabatzea, baldin eta babesgabeziak halakoak eragin badizkio ume edo nerabeari.
- 5.– Sistema eta zerbitzu (normalizatu edo zehatzen) sarea sustatu eta koordinatzea, sare horrek familiari eta ume edo nerabeari laguntza eman diezaien, honako helburu hauek betetzeko:
 - Gizabanako, guraso, familia eta gizaritari dagokionez, egokitzapen jardunbide zuzena lortu eta horri eustea.
 - Babesgabezia egoerak berriz agertzeko arriskua ezabatu edo kontrolatzea.

Familia Osagarrien Azpiprograma:

Familiak izango dira azpiprograma horren jasotzaile, baldin eta, familia horietan, gurasoen arazo pertsonalak (fisikoak, ezagutzakoak, adimenekoak) konpongaitzak badira; arazo horiek izan arren, gurasoek behar den moduan bete ditzakete zenbait eginkizun, baina ezin dituzte gurasoen beste eginkizun batzuk bete, euren kabuz, oso osorik, modu iraunkorrean eta egoki.

- 1.– Ume edo nerabeari laguntza ematea; laguntza horrek guraso eginkizun zehatz batzuk osatuko ditu, haiek ezin dituztelako eginkizunok behar bezala bete.
- 2.– Ume edo nerabearen oinarrizko segurtasuna eta osotasuna bermatzea; eta, etxean dagoen bitartean, haren oinarrizko beharrianak asetzea.
- 3.– Osotasun fisikoan, emozioetan, ezagutzan edota gizarte mailan izan daitezkeen arrastoak ezabatzea, baldin eta babesgabeziak halakoak eragin badizkio.
- 4.– Sistema eta zerbitzu (normalizatu edo zehatzen) sarea sustatu eta koordinatzea, sare horrek familia osoari laguntza eman diezaion, honako helburu hauek betetzeko: batetik, gizabanako, guraso, familia eta gizarteari dagokionez, egokitzapen jardunbide zuzena lortu eta horri eustea; eta, bestetik, babesgabezia egoerak berriz agertzeko arriskua ezabatu edo kontrolatzea.

2.– FAMILIA BARRUAN SEXU ABUSUAK GERTATZEN DIREN KASUETAN LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA EMATEKO PROGRAMA BEREZIA

Definizioa

Familia barruan sexu abusuak daudenean laguntza psikologikoa emateko programa bereziaren bitartez, banakako laguntza eta laguntza orokorra eman nahi zaio familia osoari, eta, beharrezkoa izanez gero, banan-banako laguntza psikoterapeutikoa emango zaie programaren jasotzaile diren adingabeei. Azterketa eta Esku-hartze Psikologikoetarako Zerbitzua garapen fisiko eta emozionala babesteko baliabide gisa erabiltzen da.

Hartzaileak

Familiak izango dira programaren jasotzaile, baldin eta familia horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan badute euren bizilekua, euren seme-alabak 0 eta 18 urte bitartekoak badira, seme-alaboi buruz Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak babes espedientea ireki badu, eta familiaren barruan sexu abusuak izan badira edo horiek direlako zantzu oinarridunak badaude.

Programa horrekin, laguntza eman nahi zaie, batetik, familiei, ume edo nerabea bere jatorrizko familiarekin bizi denean; eta, bestetik, harrera etxeei, hura babesteko neurri gisa, bere familiarik aldi baterako aldendu bada eta, horren ondorioz, harrerako zentro batera eramán bada edo harrera familiarekin badago.

Programa honetan ari da bi psikoterapeutak osatutako lantaldea.

Xedeak

Tratamenduaren helburu orokorrak honela azal daitezke, labur bilduta:

- Guraso erasotzaileari dagokionez, helburu nagusiak hauek izango dira: abusuan parte hartu duela aitortu eta erantzukizuna duela onar dezala; adingabeekiko sexu harremani buruz dituen jarrera eta balioen distorsio kognitiboak zuzentzea; eta, orobat, ezagutza mekanismo egokiak ezartzea, haren bulkadak kontrolatzeko, betiere, abusuzko jokabidea berriz ager dadin saihestuz.
- Erasotzaile ez den gurasoari eta bestelako familia kideei dagokienez, helburu nagusiak jarraian azaltzen direnak izango dira: horiek abusua badela edota abusu hori larria dela aitortzea; bikotekideari eta seme-alabei begira, horiek dituzten igurikimen desegokiak zuzentzea; umearen aurkako haserre sentimenduei aurre egitea; abandonu eta bazterketari buruzko sentimenduen tratamendua

egitea; seme-alabekin eta bestelako helduekin komunikatzeko gidalerroak erakustea; eta, oro har, adierazpen gaitasuna, norberaren burua aintzakotzat hartzea, arauak eta mugak ezartzeko gaitasuna eta eguneroko bizimoduaren ohiko eskariei aurre egiteko gaitasuna sustatzea.

- Abusua jasan dutenei dagokienez, helburu nagusia izango da, hain zuzen ere, ume edo nerabeari laguntza ematea. Laguntzaren bitartez, ume edo nerabeak bere esperientziak ulertu, barneratu eta konpondu ahal izango ditu, esperientziok eragina izan baitute haren garapenean, hark ingurunearekin duen jardunean, bai eta haren segurtasunean ere. Horrela, ume edo nerabeak oinarritzko konfiantza berreskuratuko du bere buruarekin eta gainerakoekin. Orobat, beste pertsona heldu batzuekin eta beraren parekoekin, egokitzapen harremanak izaten ikasiko du eta, aldi berean, erruaren ondoriozko sentimenduak eta eragindako okerreko ideiak ezabatu ahal izango ditu. Bide beretik, aurre egin beharko zaie egoerak eragindako beldur, estutasun, haserre bizi edo goibeltasunari, bai eta sortutako sexu arazoei ere.

Edukiak

Programan hainbat eduki jorratzen dira. Era berean, arreta osoa emango zaio familia sistema osoari eta arreta indibiduala, beharrezkoa denean, abusua egin duen aita edo amari, abusua egin ez duen aita edo amari, erasoa jasan duten seme-alabei eta beste neba-arreba batzuei.

Halaber, banakako laguntza psikoterapeutikoa emango zaie, beharrezkoa izanez gero, Umeen Zerbitzuan babes espedientea irekita duten adingabeei, familiarik kanpoko beste norbaiten sexu erasoak jasan badituzte, edozein motatakoak izanik ere; eta erasotzaileari ere bai

Edukiei dagokienez, honakoak azpimarra daitezke:

- 1– Diagnostikoa egitea, balizko sexu abusuengatik esku hartu beharra dagoen ala ez baloratzea, eta tratamendu psikoterapeutikoa ezartzeko beharrezkoa eta aukerak zehaztea.
- 2– Beste erakunde batzuek esku hartu duten kasuak koordinatu eta bideratzea, eta beste programa batzuetan sartuta dauden sexu abusuen kasuak gainbegiratzea.
- 3– Banakako laguntza psikologikoa: laguntza psikologikorako eta psikoterapiako banakako tratamenduak.

Jasotzen den kasu bakoitza lau prozesu motaren esparruan banatzen da, horietako bi luzetarakoak (ikerketa prozesuak: kasu bat egiaztatu, berretsi eta baliozkotzekoak, eta prozesu terapeutikoak: haurren sexu abusuaren edota babesik ezaren ondoriozko kalteari tratamendu psikoterapeutikoa ematekoak) eta beste zeharkako bi prozesu (diagnostiko kliniko eta psikosozialeko prozesua eta koordinazio prozesua).

3.– IJITO ADINGABEKOEKIN ETA EUREN FAMILIEKIN FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA

Programa honek ume eta gazteen babesgabeziari aurre egin nahi dio ijitoen erkidego etnikoan. Programan diharduen lantaldeko profesionalak ijitoak dira edo, gutxienez ere, ijitoen kultura ikasi dute.

Helburu orokorrak

- 1– Umeen Zerbitzuarekin koordinatuta, gizarte heziketako esku hartzeak gauzatzea, ijitoen komunitateko adingabeen banan banako arretara bideratuak, beren oinarrizko beharretangabeziak dauzkatenak, babesgabetasun arriskuaren edo babesgabetasun larriko arriskuaren adierazleak kontuan hartuz.
- 2– Umeen edota nerabeen garapen integrala sustatzea; baliabide pertsonalak, familia eta ingurumen arlokoak sustatzea eta espazio eta baliabide normalizatuera sartzea ahalbidetzea.
- 3– Familia ijitoa bultzatu eta babestea; horretarako, gurasoekin edo izatezko zaindareekin babes, orientazio eta aholkularitza jarduerak espezifikoko gauzatzea harien guraso gaitasunak garatzeko eta beren egoera aldatu edo hobetzeko aurrez ikusitako prozesuetan esku hartuz.

Hartzaileak

Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren familia ijitoak, haien 0 eta 18 urte bitarteko seme-alabek babes espediente bat irekita dutenean Gizarte Ekintza Saileko Umeen Zerbitzuan, eta haurren babesgabezia larritasun altukoa edo oso altukoa denean. Programaren barruan arreta emango zaie bai seme-alabak familiaren etxebizitzan bizi direnean, bai aldi batez babes neurri gisa harrera familia edo zentro batean daudenean ere.

Programaren funtzioak

- Laguntza pertsonala ematea guraso, tutore edo zaintzaileei eta ume eta nerabeei.
- Sostengua ematea familiaren etxean baldintza egokiak izateko, haurren oinarrizko babesa, integritatea eta segurtasuna bermatuko dituztenak.
- Helduen jarduera osatzea, beren guraso erantzukizunak betetzean eta seme-alaben arreta ematean, beharrezkoa bada.
- Behar dituzten ezaguerak eta umeen oinarrizko beharizan eta eskariei egokiro erantzuteko trebetasunak eta teknikak erakustea.
- Kasu bakoitzean behar diren erkidegoko baliabideak abiarazi eta koordinatu daitezen sustatzea.
- Umeen Zerbitzuak martxan jarritako kasuaren Planean aurrez ikusitako esku hartzea garatzea.

Xedea

Jakinarazpen, Zitazio eta Lekualdaketetarako Lantaldeak (ENCYT) egiten du zerbitzu hori, Umeen Zerbitzuaren agindupean. Zehatzago, honako esku hartze eta lan hauek egiten ditu:

- 1.– Gizarte Ekintza Sailak itzalgabezia dagoela adierazteko eta Aldundiak tutoretza bereganatu dezala agintzeko foru aginduak ematen dituenean, Kode Zibilaren 172. artikuluan oinarrituta, lantaldeak ebazpena interesdunei jakinarazten die, euren etxean edo beste edozein lekutan.
- 2.– Bestelako jakinarazpen eta zitazioak ere egiten ditu, Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapean edota zaintzapean dauden adingabeei buruz aipatutako sailak ematen dituen ebazpenak direla-eta.
- 3.– Umeak gurasoen ondotik jaso eta Umeen Zerbitzuak adierazitako lekura eramaten ditu (beste familia baten etxera, harrera zentrora...). Zerbitzu horri lotuta, umeen gauzak eta agiriak ere leku batetik bestera eramaten ditu eta hartu behar dituen pertsonari ematen dizkio.
- 4.– Informazioa “in situ” biltzen du, presazko kasuetan.
- 5.– Aldundiaren tutoretzapean dauden umeei buruzko agiriak eskuratzeko kudeaketak egiten ditu edozein erakundetan (nortasun agiri nazionala, pasaporteak, egoiliar baimenak, banku edo aurrezki kutxetan kontu korronteak irekitzea, osasun kartilak etab.).
- 6.– Informazio eta dokumentazio lanak eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrak lekuz aldatzeko lanak egiten ditu.

Xedeak

Hona esku hartze honen helburu orokorrak:

- 1.– Portaera disruptiboak edota egoera korapilatsuak sortu dituzten eragozpen pertsonalak eta familiarrak moteltzea (edo ezabatzea, ahal bada).
- 2.– Familia orok urteetan zehar izan dituen eta haurra bete-betean garatzea saihestu duten hutsune eta gabeziak zuzentzea.
- 3.– Familiako kideek erabateko garapenerako eta gizartean modu positiboan integratzeko behar dituzten bitartekoak gehitzea.
- 4.– Senitartekoen eta gizarte laguntzako sareko kideen gizarte gaitasuna eta gaitasun pertsonala sustatzea.

Onuradunak

12 eta 18 urte bitarteko nerabeak, gizarte gatazkan daudenak eta beren ezaugarri pertsonal, familiar edo sozialen ondorioz arrisku larriko edo babesgabeziako faktoreak dituztenak eta gizarte eta hezkuntza mailako esku hartze biziagoa behar dutenak.

Era berean, onuradun izango dira nerabearekin harremanak izateko arazoak dituzten eta horiek konpontzeko orientazioa edo laguntza behar duten nerabeen familiak -batez ere gurasoak-.

Arreta berezi integrala izango da esku hartzearen oinarria eta babes espedientea eduki beharko da Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Umeen Zerbitzuan.

Edukia

Egitarauak ondoko osagaiak eduki behar ditu, gutxienez:

- 1.– Nerabearekin esku hartzea.– Haren bizitzako alderdi guztiak hartu behar dira kontuan, nerabezaroko arazo nagusietan arreta berezia jarrita; helburuak hauexek dira: hezkuntzako orientazioa eta laguntza ematea, laneratzen laguntzea, aisialdiko jarduerak eskaintzea eta senitartekoekin, beste nerabe batzuekin eta inguruko jendearekin harremanak nola ezarri ikastea.

2.– Familiarekin esku hartzea.– Seme-alaben arazoetan eragin berezia izan dezaketen alderdiak jorratu behar dira, ondokoak lortzeko: familiak bere arazoen kontzientzia izatea konpontzen ikasteko eta bere kabuz moldatzea ahalbideratzen duten azturak bereganatzea, bai hezkuntzaren arloan, bai etxearen antolamenduan.

Kontratuaren helburua

BESTE FAMILIA BATEAN

Edukia

Hauxe da esku hartzearen edukia:

1.– Harrera familiei informazioa ematea, halakoak erakartzea, baloratzea eta haiei prestakuntza ematea, helburu hauek betetzeko:

- Larrialdi harrerak.
- Harrera sinpleak (bi urte baino gutxiago, ustez).
- Harrera iraunkorrak (bi urte baino gehiago, ustez), babesgabezia larriaren ondorioz euren familiatik aldi baterako banandu behar izan diren adingabeentzat.

2.– Harrera familia horiek prestatzea, esleipen proposamena egitea eta jarraitzea; eta horiei eta umei laguntza ematea harreraren prozesuan:

- 2.1.– Prestakuntza eta laguntza, familia hartzailean egokitzeko prozesuan.
- 2.2.– Harrera familientzako sostengua.
- 2.3.– Hartutako umeentzako laguntza.
- 2.4.– Jatorrizko familiei laguntzea eta haiekin esku hartzea.
- 2.5.– Gainikuspena eta kontrola haurrak jatorrizko familia bisitatzen duenean.

3.– Presako harrerak sustatzea, hauek ere beste familia batzuetan. Kasu bereziak ematen direnean izan ezik, harrera horiek gehienez sei hilabete iraungo dute. Bitarte horretan, Gizarte Ekintza Sailak kasuaren balorazioa egingo du, eta txosten nahiz esku hartzeak eskatu ahalko dizkio kontratu honen xede den lantaldeari. Bereziki sustatuko dira presako familia harrerak sei urtetik beherako adingabeentzat, horien erakundetzea saihesteko.

Eduki hori honako zerbitzuen bitartez garatuko da:

HARRERA FAMILIAK INFORMATU, ERAKARRI, BALORATU ETA HAI EI PRESTAKUNTZA EMATEKO ZERBITZUA.

Familia Harreren Taldeak jasoko ditu harrera beste familia batean egitearen inguruko informazio eskaera guztiak, dela zuzenean, dela Gizarte Ekintza Sailaren bitartez.

Familiak erakartzeari dagokionez, Familia Harreren Taldeak berariazko ekintzak burutuko ditu familia harrera zer den jendeari erakusteko, betiere Gizarte Ekintza Sailaren zaintzapean.

Berariazko programak egingo dira presako familia harrerak, harrera sinpleak eta iraunkorrak egiteko gai diren familiekin; balizko harrera familiak aukeratzeko eta prestatzeko diseinua proposatuko da.

Hauek izango dira prestakuntzaren helburuak:

Familiei informazioa eta prestakuntza ematea, familia harrera zer den jakin dezaten.

Familiek harrerari buruz itxaropen egokiak izan ditzaten lortzea.

Familiak prestatzea, modu egokian aurre egin eta erantzun diezaieten harrera prozesuan azaldu daitezkeen berezitasun, beharrian eta eskariei, bai haurrari dagokionez eta bai jatorrizko familiari ere.

Harrera eskatzaileen balorazio psikosoziala jasoko da berariaz emango den txostenean. Txosten horretan balorazio orokorra eta bidezko proposamena bilduko dira. Haurrak eta Nerabeak Babesteko Batzordeak berretsi beharko du, gero, txostena.

HARRERA PROZESURAKO LAGUNTZA OSOA EMATEKO ZERBITZUA

Zerbitzuak ondoren zehazten direnen arteko edozein esparrutan berehala esku hartzeko ahalmena izan beharko du; baita harrera familiek, adingabeek eta familia biologikoek izan litzaketen krisi edo larrialdi egoeretan babesa, kontrola eta euskarria emateko gaitasuna ere. Zerbitzu hau egokiro antolatatu behar da, kasu bakoitzean behar bezain arin egin dadin eta behar adina baliabide erabil daitezten.

Harrera familia guztiek eta hartutako ume guztiek ondoren deskribatutako zerbitzuak jasoko dituzte, baldin eta Umeen Zerbitzuak horrela baloratzen badu. Bisitak gainbegiratu eta kontrolatzeko zerbitzua administrazio ebazpenak edo ebazpen judizialak bisitek gainbegiratuak izan behar dutela ezartzen duenean eta programara horretarako bideratzen denean erabiliko da soil-soilik. Kasu bakoitzaren esku hartzea (harrera familia, hartutako umea eta familia biologikoa) Umeen Zerbitzuan ezarritako kasuaren planaren arabera egingo da, eta Zerbitzu horren kasuen koordinatzailearen oharrei jarraiki. Kasuaren koordinatzaileak kasua ikuskatzen duenarekin batera egin beharko du lan, jarraitu beharreko esku hartze estrategia, esku hartzerako profesionalak, intentsitatea, etab. ezartzeko.

ADINGABEA ETA FAMILIA HARTZAILEA ELKARRI EGOKITZEKO PROZESURAKO PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA

Harrera guztiak izango dute egokitze fasea, aurretik elkarrekin bizi izan gabe. Fase horren iraupena umearen adinaren eta bilakaeraren arabera izango da. Gehienez hiru hilabete iraungo du, baina salbuespenez epe hori luzatu egin daiteke Umeen Zerbitzuak hala erabakitzen duenean.

Zerbitzu honen bidez egokitze prozesua erraztu behar da eta sor daitezkeen zailtasunak konpontzen lagundu behar da.

Zerbitzuak behar beste aholku emango dizkie harrera familiei, adingabeei eta jatorrizko familiei, eta behar denean esku hartuko du haiekin guztiekin (telefono deiak, elkarrizketak eta bisitak); horrez gain, alderdi guztiak familia harrerarako behar bezala prestatuta daudela bermatze aldera, Umeen Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen dituen baliabideekin koordinatuta lan egingo du. Betiere, kasuaren gainbegiraleak zuzenduko du dena.

HARRERA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA

Zerbitzu honek familia hartzaileei orientazioa eta laguntza emango die helburu hauetarako:

Harreraren bilakaeraren etengabeko jarraipena egiteko.

Lotura eta askatze prozesuetan laguntzeko.

Harrera prozesuan zehar sor daitezkeen arazoei egokiro aurre egiten laguntzeko.

Bi mekanismo erabiliko dira laguntza emateko:

Banakako laguntza eta aholkularitza, profesionalen aldetik (gehienbat etxean).

Taldeko trukea eta laguntza. Guraso hartzaileen taldea eratuko da, eta bilerak egingo ditu teknikariek egokitzen jotzen duten maiztasunarekin. Talde horretan parte hartuko dute familia hartzaileek eta haiekin esku hartzen ari den taldeko profesionalak.

Zerbitzuak, gainera, familiei telefono bidezko etengabeko aholkularitza, etxeko etxeko bisitak eta, behar izanez gero, laguntza psikologikorako saioak eskainiko dizkie, hori guztia kasua ikuskatzen ari denak gidatuta, koordinatzaileak oniritzia eman ondoren.

Familia guztiak kasuaren gainbegiralea izango dute. Taldeko gainbegiraleak eta Umeen Zerbitzuan kasua koordinatzen duenak ados jarrita erabakiko dute programako baliabide gehiago (familia hezkuntza, psikoterapia) erabili behar diren ala ez, eta, baiezkoan, noiz erabili behar diren eta zenbat. Familia bakoitzaren beharrezko zehatzen arabera hartuko da erabaki hori, eta behar adina aldiz aldatu ahal izango da. Kasua koordinatzeko ardura duen pertsonak izango du eskumena behar diren erabakiak hartzeko.

UMEENTZAKO LAGUNTZA

Hauek dira zerbitzu honen helburuak:

Euren egoera ulertzen eta berari modu egokian aurre egiten laguntzea.

Harreraren ondorioz gatazka pertsonal larriak izan edota babesgabeziaren ondorioz moldatzeko arazoak edo traumak dituztenei diagnostikoa egitea eta tratamendu psikoterapeutikoa ematea.

Bi mekanismo erabiliko dira laguntza emateko:

Taldearen banakako laguntza eta aholkularitza.

Familiatan hartutako adingabeen arteko talde trukea eta laguntza. Ezaugarri berdintsuak dituztenek taldea osatuko dute eta bilerak egingo dituzte, kasuetan esku hartzen duten Umeen Zerbitzuko teknikariek egoki irizten dioten maiztasunarekin, eskaria egonez gero.

Betiere tratamendu psikoterapeutikoa laburra izango da eta unean uneko arazoei zuzendua. Tratamendua psikoterapeuta batek emango du, Umeen Zerbitzuaren onespeneren ondoren, eta Umeen Zerbitzuko Kasuaren koordinatzailearen eta programako Kasuaren gainbegiralearen artean adostu eta proposatutako ohar eta helburuetan oinarrituz.

JATORRIZKO FAMILIEI LAGUNTZEA ETA HAIEKIN ESKU HARTZEA

Programa honek jatorrizko familiatan esku hartzeko zerbitzu berezia edukiko du, helburu hauek betetzeko:

Familia harreraren ondoren, epe laburrean edo ertainean, jatorrizko familiara itzultzea aurreikusten denean:

Umea lehenbailehen jatorriko familiarekin itzultzea lortzea, gurasoen gaikuntza lana gauzatzuz (lan horrek honako alderdi hauek barne hartuko ditu: etxeko lana, egin beharreko gestioetan laguntzea, aholkularitza, etab.) umea behar bezala itzultzen dela ziurtatzeko; baina, betiere, Umeen Zerbitzuan ezarritako kasuaren planarekin bat etorrituz.

Aurrerantzean, haurra bere etxetik berriro aldentzeko arriskurik ez izatea, alegia, arrisku hori ezabatu edo kontrolatzea.

Familia harreraren ondoren epe ertain edo luzean itzultzerik aurreikusten ez denean:

Umeen Zerbitzuak ezarritako lan plana burutzea.

Jatorrizko familiak familia harrera onar dezan saiatzea, eta onartu ezean, elkarren errespetua lortzea eta egoera adingabearentzat ahelik onuragarriena izan dadin ahalegintzea.

Programan kasua gainbegiratzen dutenek eta Umeen Zerbitzuan kasua koordinatzen dutenek ados jarrita erabakiko dute programako baliabideak (familia hezkuntza, psikoterapia etab.) erabiltzeko unea eta horien intentsitatea. Familia bakoitzaren beharrian zehatzen

arabera hartuko da erabaki hori, eta behar adina aldiz aldatu ahal izango da. Aipatutako koordinatzeko ardura duen pertsonak izango du eskumena behar diren erabakiak hartzeko.

BISITAK GAINBEGIRATZEA ETA KONTROLATZEA

Umeen Zerbitzuak programara kasu bat ikuskatzeko eta bisitak kontrolatzeko bideratzen duenean, teknikari bat jarriko du umearekin batera joan dadin eta umea eta haren jatorrizko familiaren artean behaketa, kontrol eta ikuskapen funtzioak gauza ditzan. Kasuaren ezaugarrien arabera, Taldearen lokaletan edo kanpoan gainbegiratu ahal izango da bisita.

Bisiten araubideak epai bidez ezarritakoa edo Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak hartutako ebazpenean ezarritakoa beteko du. Sententzia judizialean edo administrazio ebazpenean aurrez ikusi ez den edozein aldaketa Umeen Zerbitzuari jakinarazi behar zaio, horren berri izan dezan eta ebazpena eman dezan.

PRESAKO HARRERETARAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Zerbitzuak, harrera beste familia batean egiteko ezartzen diren gutxieneko baliabideez gainera, hurrengo eginkizunak izango ditu:

Familia hartzaileari prestakuntza berezia ematea, programak horrela eskatzen bada.

Kasuaren koordinatzailearekin batera, haurrari familia bat izendatzea eta familiari lagun egitea haurrerekiko topaketan.

Premiazko banantzeetan, aldez aurretik ezin izan bada kasuaren ebaluazio osoa egin, programak balorazio psikosozialeko lanetan parte hartu ahaliko du, baldin eta Umeen Zerbitzuak eskatzen badiu.

FAMILIA ZABALEAN

Hauxe da esku hartzearen edukia:

- 1.– Harrera familien Prestakuntza eta Gaikuntza.
- 2.– Harrera familia horien jarraipena eta sustapena, eta horiei eta haur edo nerabeei laguntza ematea harreraren prozesuan:
 - 2.1.– Egokitzeko prozesurako prestakuntza eta laguntza, beharrezkoa den kasuetan.
 - 2.2.– Harrera familientzako sostengua.
 - 2.3.– Umeentzako laguntza.

2.4.– Jatorrizko familiei laguntzea eta haiekin esku hartzea.

2.5.– Gainikuspena eta kontrola, haurrek jatorrizko familia bisitatzen dutenean.

Eduki hori honako zerbitzuen bitartez garatuko da:

HARRERA FAMILIAK INFORMATU ETA PRESTATZEKO ZERBITZUA

Harrera familia handientzako prestakuntza diseinu berezia egingo da. Hauek izango dira prestakuntzaren helburuak:

Familiei informazioa eta prestakuntza ematea, familia harrera zertan datzan, dakartzan inplikazio legalak zein diren, etab. jakin dezaten.

Familiek harrerarekin lotutako itxaropen egokiak izatea lortzea (arazorik ohikoenak, dauden baliabideak, etab.).

Familia prestatzea behar bezala erantzun eta aurre egin diezaieten harrera prozesuaren berezitasun, behar eta baldintzei, bai umeei dagokienez (heziketa moldeak, gatazkak konpontzea, haien historia ezagutzea, etab.), nahiz haien guraso eta beste senideei dagokienez (familiako rolak, bisiten erregimena, etab.).

HARRERA PROZESURAKO LAGUNTZA OSOA EMATEKO ZERBITZUA

Zerbitzuak ondoren zehazten direnen arteko edozein esparrutan berehala esku hartzeko ahalmena izan beharko du; baita harrera familiek, adingabeek eta familia biologikoek izan litzaketen krisi edo larrialdi egoeretan babesa, kontrola eta euskarria emateko gaitasuna ere. Zerbitzu hau egokiro antolatu behar da, kasu bakoitzean behar bezain arin egin dadin eta behar adina baliabide erabil daitezzen.

Harrera familia guztiek eta hartutako ume guztiek ondoren deskribatutako zerbitzuak jasoko dituzte, baldin eta Umeen Zerbitzuak horrela baloratzen badu. Bisitak gainbegiratu eta kontrolatzeko zerbitzua administrazio ebazpenak edo ebazpen judizialak bisitek gainbegiratuak izan behar dutela ezartzen duenean eta programara horretarako bideratzen denean erabiliko da soil-soilik. Kasu bakoitzaren esku hartzea (harrera familia, hartutako umea eta familia biologikoa) Umeen Zerbitzuan ezarritako kasuaren planaren arabera egingo da, eta Zerbitzu horren kasuen koordinatzailearen oharrei jarraiki. Kasuaren koordinatzaileak kasua ikuskatzen duenarekin batera egin beharko du lan, jarraitu beharreko esku hartze estrategia, esku hartzerako profesionalak, intentsitatea, etab. ezartzeko.

EGOKITZE PROZESURAKO PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA

Familia handia denean, ez da egokitzapen faserik egiten, baina aparteko baldintzaren baten ondorioz, beharrezkoa izan liteke. Fase horren iraupena umearen adinaren eta bilakaeraren arabera izango da. Gehienez hiru hilabete iraungo du, baina salbuespenez epe hori luzatu egin daiteke, Umeen Zerbitzuak hala erabakitzen duenean.

Zerbitzu honen bidez familia hartzaileari eta haurrari egokitze prozesua erraztu eta sor daitezkeen zailtasunak konpontzen lagundu nahi zaie.

Zerbitzuak behar beste aholku emango dizkie harrera familiei, adingabeei eta jatorrizko familiei, eta behar denean esku hartuko du haiekin guztiekin (telefono deiak, elkarrizketak eta bisitak); horrez gain, alderdi guztiak familia harrerarako behar bezala prestatuta daudela bermatze aldera, Umeen Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen dituen baliabideekin koordinatuta lan egingo du. Betiere, kasuaren gainbegiraleak zuzenduko du dena.

HARRERA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA

Zerbitzu honek familia hartzaileei orientazioa eta laguntza emango die, helburu hauetarako:

Harreraren bilakaeraren etengabeko jarraipena egiteko.

Lotura eta askatze prozesuetan laguntzeko.

Harrera prozesuan zehar sor daitezkeen arazoei egokiro aurre egiten laguntzeko.

Familia hartzaileari laguntza emateko, hartutako neska-mutilak familiaren etxean eta eguneroko ekintzetan babestuta eta seguru daudela ziurtatzeko.

Bi mekanismo erabiliko dira laguntza emateko:

Banakako laguntza eta aholkularitza, profesionalen aldetik (gehienbat etxean).

Talde babesa familia hartzaileen talde bat eratuz, harrerako arazo eta zailtasunei heltzeko.

Zerbitzuak, gainera, familiei telefono bidezko etengabeko aholkularitza, etxez etxeko bisitak eta, behar izanez gero, laguntza psikologikorako saioak eskainiko dizkie, hori guztia kasua ikuskatzen ari denak gidatuta, koordinatzaileak oniritzia eman ondoren.

Familia guztiek kasuaren gainbegiralea izango dute. Taldeko gainbegiraleak eta Umeen Zerbitzuan kasua koordinatzen duenak ados jarrita erabakiko dute programako baliabide gehiago (familia hezkuntza, psikoterapia) erabili behar diren ala ez, eta, baiezkoan, noiz erabili behar diren eta zenbat. Familia bakoitzaren beharizan zehatzen arabera hartuko da erabaki hori, eta behar adina aldiz aldatu ahal izango da. Kasua koordinatzeko ardura duen pertsonak izango du eskumena behar diren erabakiak hartzeko.

UMEENTZAKO LAGUNTZA

Hauetara zerbitzu honen helburuak:

Haurrei euren egoera ulertzen eta horri egokiro aurre egiten laguntzea.

Haien bizitza historiari buruzko lana.

Harreraren ondorioz gatazka pertsonal larriak izan edota babesgabeziaren ondorioz moldatzeko arazoak edo traumak dituztenei diagnostikoa egitea eta tratamendu psikoterapeutikoa ematea.

Bi mekanismo erabiliko dira laguntza emateko:

Taldearen banakako laguntza eta aholkularitza.

Familietan hartutako adingabeen arteko talde trukea eta laguntza. Ezaugarri berdintsuak dituztenek taldea osatuko dute eta bilerak egingo dituzte, kasuetan esku hartzen duten Umeen Zerbitzuko teknikariek egoki irizten dioten maiztasunarekin, eskaria egonez gero.

Betiere tratamendu psikoterapeutikoa laburra izango da eta unean uneko arazoei zuzendua. Tratamendua psikoterapeuta batek emango du, Umeen Zerbitzuaren onespeneraren ondoren, eta Umeen Zerbitzuko Kasuaren koordinatzailearen eta programako Kasuaren ikuskariaren artean adostu eta proposatutako ohar eta helburuetan oinarrituz

JATORRIZKO FAMILIEI LAGUNTzea ETA HAIEKIN ESKU HARTZEA

Programa honek jatorrizko familietan esku hartzeko zerbitzu berezia edukiko du, helburu hauek betetzeko:

Familia harreraren ondoren, epe laburrean edo ertainean itzultzea aurreikusten denean:

Umea lehenbailehen jatorriko familiarekin itzultzea lortzea, gurasoen gaikuntza lana gauzatzuz (lan horrek honako alderdi hauek barne hartuko ditu: etxeko lana, egin beharreko gestioetan laguntzea, aholkularitza, etab.) umea behar bezala itzultzen dela ziurtatzeko; baina, betiere, Umeen Zerbitzuan ezarritako kasuaren planarekin bat etorrituz.

Aurrerantzean, haurra bere familiatik berriro banantzeko arriskurik ez izatea, alegia, arrisku hori ezabatu edo kontrolatzea.

Familia harreraren ondoren epe ertain edo luzean itzultzerik aurreikusten ez denean:

Umeen Zerbitzuak ezarritako lan plana burutzea.

Gurasoek familia harrera onar dezaten saiatzea, eta onartu ezean, elkarren errespetua lortzea eta egoera adingabearentzat ahalik onuragarriena izan dadin ahalegintzea.

Programan kasua gainbegiratzen dutenek eta Umeen Zerbitzuan kasua koordinatzen dutenek ados jarrita erabakiko dute programako baliabideak (familia hezkuntza, psikoterapia etab.) erabiltzeko unea eta horien intentsitatea. Familia bakoitzaren beharrezan zehatzen arabera hartuko da erabaki hori, eta behar adina aldiz aldatu ahal izango da. Aipatutako koordinatzeko ardura duen pertsonak izango du eskumena behar diren erabakiak hartzeko.

BISITAK GAINBEGIRATZEA ETA KONTROLATZEA

Umeen Zerbitzuak programara kasu bat ikuskatzeko eta bisitak kontrolatzeko bideratzen duenean, teknikari bat jarriko du umearekin batera joan dadin eta umea eta haren jatorrizko familiaren artean behaketa, kontrol eta ikuskapen funtzioak gauza ditzan. Kasuaren ezaugarrien arabera, Taldearen lokaletan edo kanpoan gainbegiratu ahal izango da bisita.

Bisiten araubideak epe bidez ezarritakoa edo Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak hartutako ebazpenean ezarritakoa beteko du. Sententzia judizialean edo administrazio ebazpenean aurrez ikusi ez den edozein aldaketa Umeen Zerbitzuari jakinarazi behar zaio, horren berri izan dezan eta ebazpena eman dezan.

Pertsona onuradunak

Familia harrera soilerako, iraunkorrerako edo presakorako gai diren adingabeak, horiek erakundeetan sartzea ekiditeko.

Adingabea familian geratuz konpondu ezin diren arazoak dituzten familiak, umea familia batean hartuta dagoenean.

Adopziorako asmorik ez duten kanpoko familia hartzaileak.

Umeen Zerbitzuak bideratutako harrera-familia handiak.

Definizioa.

Familia Harrera Profesionalizatua Umeen Zerbitzuaren programa berria da. 2015eko urtarrilean jarri zen martxan, urtebeterako, beste urtebete luzatzeko aukerarekin. Programa “pilotu” honek Ohiko Familia Harrerako Programan estaltzen ez diren zerbitzu beharrianei erantzun nahi die. Hala, kasuaren bilakaerak eta emaitzek aurreikusitako helburuei erantzuteko orduan jarraitasuna eman nahi da.

Programa ezarri eta garatzeko kontratua Agintzari kooperatibari esleitu zaio, lehiaketa publikoa egin ondoren. Kooperatiba horrek, beraz, programa betearaziko du, familia harreraren talde teknikoarekin eta zerbitzuarekin lankidetzan, eta zuzenean parte hartuko du harrera familiekin esku hartzeko, aukeraketak egiteko eta balorazioak emateko prozesuetan.

Familia Harrera Profesionalizatua harrera espezializatua da eta oinarrizko ezaugarri batzuk ditu, “ohiko” prozesuak ez dituenak:

- Harreraren titularrari psikologian, gizarte lanean eta gizarte hezkuntzan titulazioa eta trebakuntza profesionala edukitzeko eskatzen zaio, haur edo nerabeek izan ditzaketan arazo zehatzei aurre egin ahal izateko.
- Familia harrera jakin batera orientatzen diren haur edo nerabeek arazo edo muga nabarmenak dituzte –ezintasun fisikoa, psikikoa edo sensoriala, nahasdura psikologikoak edo gizarte jarrerakoak- edo beste ezaugarri batzuen ondorioz, adinaren edo nebarrebak izatearen ondorioz esaterako, ezin dira ohiko familia harrera batean integratu.
- Hartzailera profesionalki kontratatzen da eren funtzioak garatzeko, harrera prozesuak irauten duen denboran zehar. Gainera, administrazio publikoarekin dagokion familia harrerako kontratua sinatzen du, gainerako modalitateetarako ezarritako eskubide eta betebeharrak berberekin.

Helburua

Familia harrera espezializatuaren eta, batez ere, profesionalizatuaren helburua zera da, proposatutako babes neurria familia harrera denean eta ume horien ezaugarri edo mugen ondorioz ohiko familia harreran integratu ezin denean erantzun bat ematea. Programa honetan zerbitzuko baliabide erabilgarriak hedatu nahi dira, geroz eta haur gehiagok jaso ditzaten familia harreraren onurak, jatorrizko familiatik bereizi ordezko neurri nagusi eta alternatibo gisa.

Programaren edukia

Familia Harrera Profesionalizatuaren programa honako fase edo prozesuetan banatzen da:

- Programan parte hartzeko aurretiazko baldintzak betetzen dituzten profesionalen trebakuntza eta aukeraketa.

- Profesionalen eta beren familia unitateen prestakuntza eta balorazioa, familia harreran egokitu daitezkeen zehazteko.
- Familiaren eta adingabearen esleipena eta prestaketa eta harrera aurreko “egokitzapen” prozesua.
- Jarraipena eta esku hartze egonkorra harrera prozesu osoan zehar, kasuaren gaineko esku hartze indibidualizatua eta taldeko prestakuntza etengabea barne, baita larrialdietan erantzuteko erabilgarritasuna ere.
- Prestakuntza eta esku hartzea harrera uzten denean eta haurra edo nerabea egoera berrira prestatzeko orduan.

Prozesuaren fase guztietan esku hartzea koordinatua izango da eta programari atxikitako teknikariek nahiz Umeen Zerbitzuko kasuen koordinatzaileek parte hartuko dute.

Arreta jasotzen duen populazioa

Programak erantzun integrala eman nahi die familia harrerako prozesuan dauden agente guztiei:

- Haur edo nerabeei baliabide honetarako proposatzen diren unetik egoera berrian integratu arte edo adinez nagusi izan arte. Arreta honetan hezkuntza, babes pertsonala, eta beharrezkoa bada, babes psikoterapeutikoa sartzen dira.
- Jatorrizko familiei, bai neurrirako prestatu eta berau onartzeko orduan, bai seme-alaben harremanari eta zaintzari eragiten dieten arazo zehatzei arreta emateko orduan.
- Harrerako langile profesionalari, prozesu osoan zehar jarraipena eta babes integrala eskainiz.

8.– NAZIOARTEKO ADOPZIORAKO ESKATZAILEAK BALORATZEKO PROGRAMA NAZIOARTEKO ADOPZIOAREN ESKATZAILEAK BALORATZEKO PROGRAMAREN BITARTEZ AZTERKETA PSIKOSOZIALA EGITEN DA, GAITASUN AGIRIA EMATEKO.

Programaren ezaugarri teknikoak

Adopzioa eskatzen duten pertsonen balorazio teknikoaren ardatza ezaugarri sozial eta psikologikoen azterketa izango da. Behean azaltzen dira baloratu beharreko alderdiak.

Balorazio prozesuak ondoko faseak ditu:

- 1. Gizarte langilea eskatzaileekin elkarrizketatuko da, behin edo gehiagotan, eta etxean bisita egingo die. Etxean bizi diren pertsona guztiak ikusi behar ditu bisita horretan.
- 2. Psikologoak eskatzaileekin hitz egingo du, aurrean aipatutako ezaugarri psikologikoak baloratzeko.

9.– ADOPTZIOA BABESTEKO PROGRAMA BIZKAIAN

Programa honen helburua Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren familia adoptatzaile guztiei arreta ematea, integrazioa sustatzeko adopzio prozesuko lehen aldietan zein geroztik beharrian eta eskaera bereziak sortzen direnean. Gainera, adoptatutako umea dela-eta laguntza behar duten pertsonen ere egiten zaie jaramon.

Xedekak

Adopzioa sustatzeko egitarau hau zerbitzu publikoa da eta beraren jardunaren ildoak familien orientazioa, haiekin esku hartzea eta bitartekaritza lanak egitea dira. Beraz, umeren bat adoptatutako familietan espezializatuta dago eta bi ardatz nagusi dauzka:

Babes tekniko espezializatua eskatzen duten familia adoptiboekin eta pertsona adoptatuekin esku hartuko da. Halaxe egingo da Umeen Zerbitzuak egokitzen jotzen duenean ere. Era berean, adopzio aurreko familia harreran edo adopzio helburuak tartean dituzten haur eta familiekin ere esku hartuko da. Banaka, familian zein taldeka egin daiteke.

Jatorri bilaketan ari diren familia adoptatzaileekin eta adoptatuekin esku hartuko da, eta bitartekaritza lanak egingo dira familia biologikoarekin.

Programaren hirugarren helburua familia adoptiboekin eta pertsona adoptatuekin informazioa eta prestakuntza ematea da. Prestakuntza saioak, profesionalen hitzaldiak, mahai inguruak aditu eta familiekin eta abar egiten dira adopzioarekin eta adopzio ostearrekin lotutako alderdi orokor eta zehatzei buruz. Lankidetzak, koordinazioa eta, egokia denean, babes emango zaie Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduerak gauzatzen dituzten adopzio familien elkarteekin.

Hartzaileak

Programaren hartzaileak dira Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren familia adoptatzaileak, adoptatutako pertsonak, adopzio prozesuan dauden familiak edo adoptatu nahi dutenak, Umeen Zerbitzuak eskaera bideratuz gero. Informazioaren eta prestakuntzaren arloko jarduketarako ez da nahitaezkoa Zerbitzuak eskaera bideratzea.

10.– LAGUNTZA ESPEZIALIZATUKO FAMILIA ELKARGUNEA

Laguntza Espezializatuko Familia Elkargunea bere sorreratik Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren mendekoa izan da harik eta 2014ko urtarrilean Bizkaiko Foru Aldundiko Umeen Zerbitzura igaro den arte. 2007ko azaroaren 26an hasi zen lanean. Gune egokia da umeen eta euren jatorrizko familien arteko topaketak egin daitezen, diziplina anitzeko lantalde baten laguntzaz eta segurtasunaren nahiz ongizatearen berme osoekin. Umeen Zerbitzuan espedienteak duten umeak dira eta zerbitzu horrek babes neurria ezarri die, dela egoitza harrera, dela familia harrera, harrera familia zabalean nahiz inoren familian, edo adopzioa bideratutako harrera.

Laguntza Espezializatuko Familia Elkargunea deritzon programaren helburu nagusia da bisitak egitea ume edo nerabearen eta bere guraso, senitarteko edo hurbileko pertsonen artean. Bisita horien bitartez jatorrizko familiarekiko loturei eutsiko zaie baldintza bereziak gertatzen direnean; hots, adingabearen onurarako eta ongizaterako, harreman horiek gainbegiratura eta ingurune mugatu batean egin beharra dagoenean.

Programaren arabera, talde profesional batek (Psikologian lizentziadunek osatua) gainbegiraturako bisitak egingo dira adingabearen eta bere familiaren artean; horrela, bi alderdien arteko harremanak aldatzen ahaleginduko da, harreman osasungarriagoak ezarri eta ordura arteko harreman disfuntzionalek adingabearengan izan duten eragin kaltegarria zuzenduz. Umea programa honetara bideratzea, modalitate eta bisita araubiderik egokienaren balorazioa egitea eta kasu bakoitzeko esku hartzearen helburuak ezartzea, eginkizun horiek guztiak Umeen Zerbitzuaren eskumenekoak dira eta kasuaren koordinatzaileak burutzen ditu.

Programa honetako prestazioa Esku-hartze Sozialerako Bizgarri Elkarteari adjudikatu zitzaion lehiaketa publiko bidez.

Zerbitzuak ordutegi honetan eskainiko du zuzeneko arreta:

- Astelehenetik ostegunera, arratsalde: 16:00 - 21:00.
- Ostiral, larunbat eta igandetan, goizeko 10:00etatik gaueko 21:00ak arte etengabe.

Zerbitzua urte osoan ematen da, are larunbat-igandeetan eta jaiegunetan ere.

Definizioa

Hauexek dira Laguntza Berezituko Familiaren Bilgunea deritzon zerbitzu honen helburuak:

- Umeek euren familiarekin harremanak izateko oinarritzko eskubidea bermatzea, babes neurri baten ondorioz hartatik bereizi ondoren.
- Kasu bakoitzeko bisitak behar bezala egiteko behar diren baliabideak jartzea, ume edo nerabearen garapen fisikoa, afektiboa eta emozionala modu egokian garatzeko.
- Gurasoei eta familiako beste kide batzuei edo hurbileko pertsoneri euskarri fisikoa eta profesionalen orientazioa ematea, ezarritako bisitak egiteko.
- Topaketa erraztea, betiere gainbegiratzea eta esku hartzea ahalbidetuko duten testuinguru batean, esku hartze hori beharrezkoa izatekotan.
- Elkarreragin eta komunikazio eredu osasungarri eta funtzionalagoa sustatzea, familia harremanak hobetzea bultzatuz
- Funtzio zuzentzailea garatzea bisita bakoitzaren garapenean, berehala esku hartuz ume edo nerabearengan eragin kaltegarria izan dezaketen portaera, mezu edo jarreretan.
- Une oro adingabeen osotasuna eta ongizatea zaintzea.

Programak

Laguntza Berezituko Familiaren Bilgunea deritzon egitarauak hiru prestazio mota eskaintzen ditu, eta prestazio horiek egin beharreko gainbegiratze mailaren eta talde profesionalaren esku hartzearen arabera bereizten dira.

1. – GAINBEGIRATZE TXIKIKO BISITA ZERBITZUA.

Honakoak egin behar diren kasuetan laguntza eskaintzera bideratuta daude:

- Umearen edo nerabearen eta beraren guraso, senide edo hurbilekoen arteko topaketa erraztu giro egokian.
- Teknikariaren presentzia ezarri bisita hasi eta amaitzerakoan, umea behar bezala entregatu eta jasotzen dela bermatzeko.
- Bisita egiteko ordutegia kontrolatu eta horren garapena ezagutu, bai eta bisitaren ezaugarriak eta izan ditzakeen eraginak ere.

2.– GAINBEGIRATZE EGONKORREKO BISITA ZERBITZUA

Honakoak egin behar diren kasuetan laguntza eskaintzera bideratuta daude:

- Leku egokia eskaini harremana mantentzeko, harremanaren garapen naturala bultzatzeko.
- Topaketa erraztu, modu jarraituan gainbegiratzeko aukera ematen duen giroan eta, behar izanez gero, harremanetan esku hartzeko.
- Zuzenean esku hartu familiarekin komunikazio jarraibideak (jarrerazkoak zein ahozkoak) aldatzeko, horiek disfuntzionalak eta kaltegarriak badira ume edo nerabearentzat.
- Bisitak iraun bitartean, bisita egin dieten pertsonen komentario edo jarrera desegokiek ume edo nerabearengan izan dezaketen eragin kaltegarria zuzentzea.
- Adingabeekin zuzenean esku hartu bisitarik nahi ez dutenean edo bisitek artegatasuna sortzen dutenean.
- Programako teknikaria aurrean egon bisita osoan, erreferentzia egonkorra eskaintzeko eta lotura egokiak sortzeko pertsona helduen eta adingabeen artean.

3. – BISITA ZERBITZUA GAINBEGIRATZE ETA ESKU HARTZEAREKIN

Modalitate honetan bisita osoa gainbegiratu da eta arreta psikologikoa eskainiko zaie umeei eta beraien senideei bisita hasi aurretik, bisitan bertan eta bisita amaitu ostean; hauexek dira beraren hiru helburu nagusiak, betiere alde aurretik ezarritako helburuen arabera:

- Berrelkartze egoerak erraztea.
- Familiako kideen portaera edo hitz desegokiak kontrolatzea.
- Aldaketak bultzatzea eta zenbait gaitasun eta trebetasun berreztea.

Hartzaileak

Hauek dira Laguntza Espezializatuko Familia Elkargunea deritzon programaren hartzaileak:

- Egoitzako harrera eskaini zaien ume eta nerabeak, euren gurasoekin, beste senide batzuekin edo hurbileko pertsona baimenduekin bisitak egingo dituztenak.
- Familia zabalean familia harrera sinple edo iraunkorrean dauden ume eta nerabeak, euren gurasoekin, beste senide batzuekin edo hurbileko pertsona baimenduekin bisitak egingo dituztenak.
- Inoren familian familia harrera sinple edo iraunkorrean dauden ume eta nerabeak, euren gurasoekin, beste senide batzuekin edo hurbileko pertsona baimenduekin bisitak egingo dituztenak.
- Adopzioaren aurreko familia harrera eskaini zaien ume eta nerabeak, euren gurasoekin, beste senide batzuekin edo hurbileko pertsona baimenduekin bisitak egingo dituztenak.

Salbuespenez, eta Umeen Zerbitzuak balorazioa egin ostean, egitarau honetan laguntza emango zaie ezarritako bisita araubidea betetzeko esku hartze berezitua behar duten ume eta nerabeen kasuei.